

BEZEROEKI KO HARREMANAK

Gure bezeroak mota desberdinetakoak izan daitezke, bakoitzak behar ezberdinak dituelako.

Lehenengoak hiriguneko egoiliarak dira. Erdialdean bizi dira, trafiko handia dagoen tokietan, eta normalean zaila dute aparkalekua aurkitzea. Pertsona hauek etxetik gertu dagoen garaje plaza bat behar dute, eguneko 24 orduetan erabilgarria. Haien helburua isunak saihestea eta aparkalekua bilatzen denbora ez galtzea da. Bezero hauek erakartzeko, auzoko sare sozialetan iragarkiak erabiliko ditugu (Facebook eta Instagram), mugikortasun-appak eta kokapenaren arabera egindako Google Ads iragarkiak. Behin zerbitzua erabiltzen hasten direnean, hileko edo asteko alokairuak eskainiko dizkiegu. Gure mezu nagusia izango da: “Ahaztu aparkalekua bilatzeaz” edo “Zure plaza segurua etxetik gertu”.

Bigarren bezero mota aldi baterako beharra duten egoiliarak dira. Adibidez, bisitak jasotzen dituzten bizilagunak edo auto berria erosi dutenak eta kalean utzi nahi ez dutenak. Hauek egun edo aste batzuetarako garajea behar dute, segurtasunarekin. Helburua irtenbide azkar eta merkea aurkitzea da. Horiek erakartzeko, Facebook eta WhatsAppeko auzo-taldeak erabiliko ditugu, baita liburuxkak ere. Segurtasuna (kamerak, alarma) eta aplikazio erraza nabarmenduko ditugu. Gainera, “lehen erreserba doan” bezalako eskaintzak egingo ditugu.

Hirugarren bezeroak bidaiariak eta turistak dira. Autoz iristen dira hirira eta hotel edo Airbnb batean ostatu hartzen dute. Ostatutik gertu dagoen aparkalekua behar dute, eguneko edo egonaldiko prezioekin. Aparkaleku publiko garestiak saihestu nahi dituzte eta segurtasuna bilatzen dute. Horiek erakartzeko, bidaiaria-aplikazioetan iragarkiak jarriko ditugu (Booking, TripAdvisor) eta hotel eta Airbnbekin lankidetzan arituko gara. Gure mezua izango da: “Gozatu zure bidaiaria, guk zure autoa zaintzen dugu”.

Beste bezero batzuk profesionalak eta aldi baterako langileak dira, adibidez komertzialak edo banatzaileak. Ordu edo egun batzuetarako aparkalekua behar dute, lanerako denbora ez galtzeko. Horiek erakartzeko LinkedIn Ads erabiliko dugu eta tokiko enprekin akordioak egingo ditugu. Ordukako prezioak eta asteko bonuak eskainiko dizkiegu. Gure erakarpenean kanpaina “Aparkatu zure lanetik gertu” mezuarekin “ Zure denborak aparkalekua biltzea baino gehiago balio du”

Azkenik, enpresak ere gure bezero izan daitezke. Enpresa batzuek aparkalekuak behar dituzte langile edo bezeroentzat, leku estrategikoetan. Horiek erakartzeko, email bidezko komunikazioa eta networking jarduerak erabiliko ditugu. Hileko edo urteko kontratuak eskainiko dira, deskontuekin eta fakturazioa

